



Global express

Gaur egungo mundua ikasgelan

Su etena: Armen negozioia



© Chrispin Hughes / OXFAM

Munduan arma arin bat dago 10 pertsona bakoitzeko eta minutu bakoitzean tiro batek pertsona bat hiltzen du. Gero eta arma gehiago dira, eta horrek gerrak bultzatu eta giza eskubideak urratzen ditu. Bitartean, armena diru irabazirik handienetakoa dakarren negozioa da munduan.

Global Express aldizkariaren argitalpen honek agerian utzi nahi du armek gizarteetan duten eragina, eragin larria, eta analisi kritikoa hasi nahi du indarkeriaren kulturaz. Halaber, kultura horrekiko aukerabideak eskaini nahi ditu.



- Heriotzaren merkataritza kontrolik gabe dago
- Nola funtzionatzen du armen negozioak?
- Nor da nor armen negozioan?
- Armen eragin larria pertsonen bizitzan
- Baina, arazoa armek al dakarte?
- Hauxe esan izan da...
- Gida didaktikoa

aurkioidia

Heriotzaren merkataritza kontrolik gabe dago



Munduan arma arin bat dago 10 pertsona bakoitzeko eta minutu bakoitzean tiro batek pertsona bat hiltzen du. Armak neurritz gora ugaltzen ari dira eta horrek gerrak bultzatu, giza eskubideak urratu eta, era berean, larriki eragiten du milioika gizon-emakumeren bizitzan. Bitartean, armena diru irabazirik handienetakoa dakarren negoziua da munduan eta gutxi batzuei mesede egiten die.

Heriotzaren negozio hau legezkoa da eta, urtero, 21.000 milioi dolar mugiarazten ditu armen esportazioetan, bereziki arma konbentzionalen salerosketan. Badira arma mota asko eta bi multzo handitan sailkatzen ditugu: batetik, konbentzionalak ez direnak, eta suntsipen handiko armak ere esaten zaie (nuklearrak, biologikoak eta kimikoak); bestetik, konbentzionalak, bai arinak (pistolak, fusilak... pertsonak karga ditzakeen armak), astunak (hegazkinak, tankeak...) edota hilgarriak ez direnak (gasak, laser, poliziaren materiala...). Sorta zabal horren barnean, arma arinak azpimarratuko ditugu, horiek sortzen baitituzte hildakorik gehien gatazka armatuetan. Oso zaila da arma arinak kontrolatu eta murriztea.

Dena dela, armen negozioa askoz ere konplexuagoa da. Sailkapenak sailkapen, armaren kontzeptua bera ez dago horren argi. Zergatik? Arma guztiek "danba" egiten ez dutelako. Armen negozioa hegazkinak, tankeak, misilak, fusilak, pistolak edota munizioa saldu edo erosteaz haratago doa, eta bere baitan biltzen ditu bai armen atalak (torlojuak, gurpilak, gai

elektronikoak...) bai eta armak diseinatu eta fabrikatzeko behar den teknologi, informazio eta ingeniari militar guztia ere. Beraz, ez daude horren argi material militarren mugak eta, hortaz, zaildu egiten du armen salerosketa kontrolatzea. Adibide ona da Turkiako Otokar enpresa. Duela hamar urte kale istiluen kontrako Scorpion ibilgailua hasi zen fabrikatzen. Ibilgailu horren atalen % 70 4x4 Land Rover batekoak dira, Britainia Handitik material zibil gisa inportatua. Atal horiei metrailetak erantsi zitzaizkien. Hortaz, ibilgailu blindatu bat egin zuten. Turkiako militarrek huraxe erabili zuten kurduen giza eskubideak urratzeko. Aldi berean, Turkiak ibilgailu blindatu hori gatazka armatuak dituzten herrialde batzuetara saldu zuen, esaterako Pakistan eta Algeriara (Gideon Burrows ikertzailearen arabera, ikus Gehiago jakiteko...).


Material militarra izan edota erabilera militarreko edo zibilera izan (sateliteak) oso zaila da kontrolatzea eta haren merkataritzak bi arazo nagusi ditu: bata da ez dagoela era horretako armak saltzeko araurik. Horrela, arma horiek iristen dira giza eskubideak zanpatzeko erabiltzen dituzten gobernu, talde armatu eta talde kriminalen eskuetara. Kalkuluen arabera, aurretik lege barnean saldutakoak dira arma arin ilegalek % 80-90. Eta beste arazo handia da arma asko eta asko dabiltzala alde batetik bestera eta oso erraza dela armak lortzea. Hori horrela da, azken urteotan metatu direlako eta etengabe arma berriak egiten ari direlako: urtero, munduan 8 milioi arma arin gehiago fabrikatzen dira eta 2 bala pertsona bakoitzeko.

Nola funtzionatzen du armen negozioak?



Arestian esan dugun bezala, armen negozioa etekin handienetakoa ematen dituen negozioa da gure munduan. Droga trafikoaren ondotik, diru gehien mugiarazten duenetakoa da, baina drogaren aferan ez bezala, armen negozioan dirurik gehiena legezkoa da. Oso zaila da armen merkataritzari buruzko zerbakiak lortzea, negozio honi buruzko datu argiegirik ez dagoelako. Beraz, zerbakiak gutxi gorabeherakoak dira eta, zerbaki desberdinak aterako zaizkigu, kalkuluan erabilitako irizpideen arabera. Hala eta guztiz ere, kalkuluek diote armen esportazioen balioa urteko 21.000 milioi dolarrekoa dela, mundu osoa kontuan hartuta. Sekulako gehikuntza izan da, gainera, nazioartean dagoen giroa ikusita, hau da, "terrorismoaren aurkako gerrak" eraginik.

Dena dela, zenbakiez haratago, zalantzarik gabe garrantzitsuagoa da merkataritza horren mamia ulertzea. Izan ere, armen negozioak mintzo garenean ez gara soilik ari armak erosi eta saltzeaz, baizik eta armen ziklo osoaz. Hona hemen eskema bidez nola azal daitekeen delako ziklo hori:



Ikus dezagun atalez atal: gobernuak diote gastu militarra beharrezkoa dela herrialdea defendatzeko, eta, horretarako, bereziki armak eta gai militarrok erosten dituzte (herrialde barneko enpresei edota beste herrialde batzuetakoei), instalazioak eraiki eta mantentzen dituzte, eta dirua gastatzen dute militarren prestakuntza eta soldatetan bai eta ikerketa militarrean ere.

Espania joera horri loturik dago eta iragan 2002an armen salmentaren balioa 275 milioi eurokoa izan zen. Beraz, aurreko urtean baino % 19 gehiago. Datu ofizialak dira.

Horrek esan nahi du Espainia bezalako herrialde batek ikerketa eta garapenaren (I + G) diru publikoaren herena baino gehiago xede militarrentzat baliatzen duela: ondorioz, 2004rako, ikerketa militarreko programen aurrekontua 6 aldiz handiagoa da osasun arloko aurrekontua baino eta, labor esateko, I+G-era baliatutako dirutzaren % 31 da. Datu ofizialak dira.

Gai militarrek erosteari dagokionez, merezi du gogoratzea hori gizarte arloko beste kontusail batzuen kaltetan doala: munduko herrialdeen herenak baliabide gehiago bideratzen dituzte beren armadetara osasun zerbitzuetara baino. Eta, beste alde batetik, azken lau urteotan, EEBB, Britainia Handia eta Frantzia diru gehiago eskuratu dute Hegoko herrialdeetara saldutako armengatik, herrialde horiek garatzera bideratu dutena baino (Vidas Destrozadas izenburuko Txostenak aitortzen duenez, ikus Gehiago jakiteko...). Iparreko nahiz Hegoko herrialdeek armak ikertu edo/eta erostera bideratzen duten diru hori guztiak eraginik, enpresek material militarra fabrikatu eta saltzen dute inolako kezkarik gabe, lasai ederrean, herrialde mota orotara (bai arma gisa bai armen atal gisa). Arma horietako asko eta asko erosten dituzte barne tentsioak edota tentsio erregionalak dituzten herrialdeek eta, haietako askotan, behin eta berriz giza eskubideak urratzen dira edota gatazka armatua jasaten ari dira.

Gaur egungo gatazka armatuak

Mundua gerran ari da, hein handian lege barneko zein kanpoko armen salmentak eraginik. Badira 40 gatazka armatu inguru. Gerra horiek hasi eta mantentzen dira lurraldea kontrolatu, natur baliabideak neurritz gora ustiatu eta aginte autoritarioa

ezartzeko. Bada, gerra horiek indartu eta luzatzen dira, armen bidez. Egia da armek ez dutela zuzenean gatazka armatua eragiten, baina arma asko metaturik dago, kontrolik gabe ugaltzen dira eta edonoren eskura daude, eta, horrek guztiak hildako gehiago eragiten ditu eta, gaur egun, hildako gehienak zibilak dira. Horrela, XX. mendean barna, erabateko aldaketa gertatu da: Lehen Mundu Gerran, hildako zibilak biktima guztien % 10 izan ziren bitartean, Bigarren Mundu Gerran erdia baino gehixeago izan ziren jadanik, eta, gaur egun, erabat aldatu da duela ehun urteko egoera: gatazka armatuetan gertatzen diren hildakoen % 90 zibilak dira.

Herritar zibilak dira giza eskubideen urraketen biktima nagusiak eta herritar zibilak dira etxea uztera behartu eta beste toki batera alde egin behar izaten dutenak; eta horiek ez dira "albo-kalteak", baizik eta zibilak helburu militar direla. Gaur egungo gerrek herritarrek kontrolatu nahi dituzte zatiketa, enfrentamentua eta giza sufrimenduaren bidez. Alde horretatik, gerra indarkeria antolatua da eta gerra dakarten estrategiek herritarren artean oinazea nahita eragiteaz gain, jendearen duintasuna ere ezabatu nahi dute.

Horregatik, armen zikloaren barnean, gerretan, armarik sofistikatuenak, hilgarrienak edota sufrimendurik handiena dakartenak erabili eta espermentatu behar dira, nahiz eta horrek Gizakien Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duen. Adibidez, horra hor armadek Irak hartzeko erabili zituzten barreiaketa-bonbak. Bomba horiek hegazkinetik jaurtiki, airean lehertu eta inguruetan dozenaka bomba barreiatzen dituzte, segidan lehertzen direnak edo mina moduan lo irauten dutenak. Beraz, gatazka armatua bukatuta ere, hildakoak eta zauritutakoak gertatzen dira eta horrek jendearen biziaren berreraikuntza oztopatzen du, jakina.

Nor da nor armen negoziatioan? Nor da nor armen negoziatioan?

Arma fabrikatu eta saltzen dituzten herrialde nagusiak



Munduko armen merkatua esku gutxitan dago: arma konbentzionalen salerosketen % 80 baino gehiago Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek egiten dituzte: EEBBek, Britainia Handiak, Errusiak, Txinak eta Frantziak. Eta,aldi berean, herrialde horiek omen dira munduan bakea eta segurtasuna bermatzen dutenak. Fabrikatzaile eta esportatzaile handien gain, beste herrialde batzuk ere badabilta armagintzan, esaterako Espainia. Hamaikagarren herrialdea da armen salmentan eta munduko esportazioen % 1 inguru mugitzen du.

Espainiari dagokionez, 2002ko datu ofizialek diote armen salerosketa erdiek badutela zerikusia Europako Eurofighter ehiza-hegazkinaren eraikuntzarekin. Material militarra nazioarteko egitasmoetan integratzeko joeraren adibidea da. Espainiak armetan egiten dituen beste esportazioen artean, kezkarriak dira Afrikako herrialde batzuei saltzen zaizkien munizio kopuruak eta munduko beste herrialde batzuei (Maroko, Venezuela, India eta, hein txikiagoan, Israel eta Angola) saltzen zaizkien bestelako armak. Herrialde horietan guztietan badira gatazka armatuak eta, horrenbestez, Europako Batasuneko Armen Esportazioari buruzko Kodearen arabera, Europako Gobernuak ez lukete halako salmentarik baimendu beharko.

Herrialde saltzaile handiak (urteko batezbestekoa 1998tik 2001era)

EEBB:	14.000 milioi dolar
Erresuma Batua:	4.600 milioi dolar
Frantzia:	3.400 milioi dolar
Errusia:	3.400 milioi dolar
Txina:	500 milioi dolar

ITURRIA: Amnistia Internacional eta Intermón Oxfam: *Vidas Destrozadas*

Gobernuek harreman estuak dituzte armen fabrikatzaileekin. Izan ere, batetik, gobernuek armen esportazioari buruzko baimena eman edo ukatu behar dute, eta, bestetik, Gobernuentzat armak ondasun nazionalak direlako eta fabrikatzaileak beren bezeroak direlako. Gainera, Estatuak diplomaziako tresna gisa erabiltzen dute armagintza eta gai militarrei buruzko hitzarmenak lortzen dituzte beste hitzarmen zabalagoen barnean. Dena dela, gobernuek ez dute jendaurreko informaziorik eskaintzen eta ez dute Parlamentuko kontrola errazten, armen gaineko politika isilpean egiten dute eta zaila da jakitea zein den gastu militarra, zeintzuk diren esportazioak eta zeintzuk diren esportazioen baldintzak. Alde horretatik, Espainia Europako Batasuneko herrialderik ilunenetakoa da.

Armagintza eta bere lobbya

Armen negozioa, bada, kasu bakarra da. Izan ere, ia ehun herrialdetako mila bat enpresen esku dagoen legezko negozioa da –baina, oinarrian Estatu Batuetako enpresen mendean dagoena -. Gobernuek enpresa horien alde jokatzeko dute eta sostengu politikoa eta diru laguntza ematen diete.

Armak ere sustatzen dira bisita diplomatikoen eta armei buruzko ferietan parte hartzearen bidez.

Estatu Batuetan badira armak saltzeko denda baimendu gehiago gasolindegia baino eta urtero armei buruzko 5.000 azoka baino gehiago egiten dira. Horri gehitzen badiogu arma-enpresarik errentagarrienak pribatizatu direla, ikusten dugu armagintzak ere etekin pribatuen eta galera publikoen bidea segitzen duela.

Armen legezko merkataritza oso lotua dago ustelkeriari, atek itxita hitzartzen den negozio iluna baita. Arma fabrikatzaileek sekulako eragina egiten dute Gobernuko ordezkariengan, eta fakturak halako moldez puzten dira ezen azkenean armen negozioa izaten da legezko negozioirik ustelena, eroskeria barne (eraikuntzarekin batera, Transparency International izeneko GKEK dioenez).

Enpresa horiek, esaterako Lockheed Martin, Northrop Grumman, Raytheon edo BAE Systems oso lotuak daude Gobernuarekin eta enpresa horien akzioen balioa % 40 arte igo zen irailaren 11ko atentatuaren ondotik eta, jakina, ziztuan prestatu ziren

“munduko segurtasunaren kontrako mehatxuari” probetxua ateratzeko. Horretarako, beren Gobernuak presionatu zuten eraso egin zezan, “prebentzio gerraren” estrategiari jarraikiz (Gideon Burrowsen arabera). Horrela, munduko politika mahai jokoaren antzekoa da: munduko agintari gorenak jokalaria dira eta arma-enpresak, aldiz, fitxak; edota alderantziz ere, hots, enpresek esaten dute zeintzuk izan daitezkeen etsai eta ez dago batere argi non dagoen Gobernuak eta enpresen arteko muga.

Arma eroslerik handienak

Herrialdeen artean, arma eroslerik handienak egoten dira egonkortasun politikorik ez dagoen lekuetan: giza eskubideak urratzen dira edota badira gatazka armatu estaliak. Hegoko herrialdeei gero eta arma gehiago saltzen ari zaizkie, Iparreko herrialdeei saltzen zaizkiena baino gehiago, salmenta osoaren bi herenak baitira. Izan ere, defentsarako aurrekontu handiak dituzten herrialdeen erdiak azken postuetan daude giza garapeneko adierazleari dagokionez. Horrek esan nahi du oso zinikoa direla armak saltzen dituzten estatuak, lehenbizi gerrak bultzatu eta, ondoren, gizakientzako laguntza ematen dute, hots, laguntza humanitarioa. Baina, era berean, agerian dago gobernu eroslearen arduragabekeria, ez baitiote aurre egiten herrialde barnean daukaten pobrezia eta giza bazterketari. Urtero, Hegoko gobernuek 22.000 milioi dolar gastatzen dituzte armetan eta azpimarratu behar da dirutza horren erdiarekin aski litzatekeela herrialde horietako haur guztien lehen hezkuntza ordaintzeko. Beste alde batetik, armek gerrei hatsa emateaz gain, giza eskubideen urraketak ere bultzatzen dituztela mundu osoan: horrela, 1997 eta 2000 artean, estatuko segurtasun indarrek etengabe tortura eta tratu txarrak egin zituzten 70 herrialdetan baino gehiagotan.

Arma erosle nagusiak (urteroko batezbestekoa. 1998 - 2001)

Afrikako Iparraldea eta Ekialde Hurbila:	1.200 milioi dolar
Afrika:	900 milioi dolar
Asia:	800 milioi dolar
Latinoamerika:	700 milioi dolar

ITURRIA: Amnistia Internacional eta Intermón Oxfam: *Vidas Destrozadas*

Dena dela, arazoa ez da bakarrik arma kopurua, baizik eta baita armen kontrola eta haien erabilera ere. Adibidez, Espainia eta El Salvadorreko arma kopurua antzekoa da, baina Espainian askoz ere hilketa gutxiago gertatzen da biztanle bakoitzeko beste herrialde hartan baino. Bestela esanik, gizarteko giroa eta armen gaineko kontrola guztiz funtsezkoak dira, armek gizarte bakoitzean duten eragina neurtzeko.

Armen eragin larria pertsonean bizitzan

Armen eragin larria pertsonean bizitzan



Armen negozioak eragin zuzenak ditu pertsonean, eta guk eragin horiek hartzen ditugu gogoan. Izan ere, egunero, milioika gizon-emakume indarkeria armatuaren mehatxuarekin bizi dira eta, urtero, milioi erdi pertsona hiltzen dira tiroengatik, eta beste asko zauriturik gertatzen dira. Eraso armatuak eragintzen, etxetik alde egin behar izaten duen jendea ere gogoan daukagu, mundu osoan 35 milioi pertsona baitira, 13 milioi errefuxiatu eta 22 milioi desplazatu bere herrialde barnean bertan.

Epe luzean aldaketa gertatzen ari da. Arma bizitzaren osagai izatera iritsi dira. Horregatik, gero eta ohikoagoa da armaren bat eduki eta erabiltzea. Mundu osoan gertatzen da hori, gainera.

Horregatik, armen zeharkako eragina ere aipatu beharra dago, hau da, indarkeriaren kultura nola indartu den. Badira tiroaz haratago doazen eraginak: azken finean, segurtasun ezaren gurril zoroak harrapatu gaitu, horrek indarkeria handiagoa dakar eta, ondorioz, neurritz kanpo zabaldu da segurtasun pribatua. Aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarrituta dago besteaz dugun ikuspegia, –“Gurekin zaude ala gure kontra”-, gure burua goratzen dugu bestearen kaltetan eta muturreko jarrerak hartzen ditugu; obeditzen da galdetu gabe, ados egon gabe, eta militarren diziplina erabiltzen da gizarte jokabiderako arau gisa; edota zabaldu egin da beldurra eta isiltasunak eragindako uzkurkeria armen mehatxuen aurrean.

...baina, arazoa armek al dakarte?

...baina, arazoa armek al dakarte?



Arma arazo dira, baina ez dira benetako arazoa, baizik eta mamian dauden beste arazo batzuen agerpidea, hots, indarkeria eta arma erabiltzea eragiten duten sustraien agerpidea. Alde horretatik, armek salatzen digute testuinguru askotan gizakia ez dagoela babestua. Horrenbestez, pentsatu beharra dago armez haratago jo behar dela: gerrarik ez izateko, armen kontra jo behar da, baina baita armen erabilera eragiten duen gauza ororen kontra ere: demokraziarik eza, segurtasun militarria, beldurra edota nagusitasun-harremanak.


Indarkeriaren kultura

Bestela esanik, arma indarkeriaren kulturako osagai dira eta zuzeneko indarkeriaren tresna dira, baina hori izebergaren kaskoa besterik ez da. Azpian, uretan dagoen zatian, gutxien ikusten den hartan, badira beste indarkeria molde batzuk, honela sailkatuko ditugunak:

Beste indarkeria mota horiek lagungarri dira ageriagoan dagoen indarkeria ulertzeko, hau da, ez dute horrenbestean zer ikusirik zuzenean egitearekin baizik eta egiten ez denarekin eta oinazea legitimatzearekin. Ondoko esaldi honek ideia hauxe dakar, hots, begi hutsez ikusten denaz haratago joan beharra dago: “fusilak ez du hiltzen, bihotz gogorrak baizik” – tiroa jotzen edo tiroa jotzeko agintzen duenaren bihotz gogorrak, alegia. –

Zer defendatu nahi dugu armen bidez? Zertaz defendatu nahi dugu?

Honaino iritsita, galdera hauxe da: zer defendatu nahi dugu armekin? Bizia defendatu nahi badugu, ziurrenera erabilgarriago gertatuko litzazuke pentsatzea bizia lotuago dagoela giza eskubideen babesari, duintasunez bizitzeko baldintzei (jana, etxea, hezkuntza, osasuna, lana...) edota ingurune ez kutsatuaz gozatzeari eta, hori horrela izan dadin,



Zuzeneko indarkeria

oinaze fisikoa edo psikologikoa eragin nahi duten ekintzak, gizakia suntsitu ere egin dezaketenak, bai arma erabilia bai arma mehatxu gisa baliatuta edo beste bitarteko batzuk erabilia.

Egiturazko indarkeria

Indarkeria hau gertatzen da izan gintezkeena ez garenean edota eduki genezakeena ez daukagunean, hau da, gizakiari oinarritzko premiak ukatzen zaizkionean (pobrezia, gosea, lan kolokatasuna) edota giza eskubideak zanpatzen zaizkionean (zapalketa, patriarkatua).

Indarkeria kulturala

kulturaren bidetik beste bi indarkeria mota haiek zilegi egiten dituen indarkeria da. Esaterako, bestea deskalifikatzen duten diskurtsuak, maskulinitateari, arrazakeria sustatzeari edota fanatismo erlijiosori loturiko nagusitasun-sentimenduak.

ez da armarik behar, ez da segurtasun militartua behar, baizik eta aski da giza segurtasunarekin. Beste kontu bat da pentsatzea zertaz edota norengandik babestu nahi dugun, hau da, zer hartzen dugun mehatxutzat, mehatxu horiek identifikatu eta aurreiritziak saiheste aldera. Azkenik, ikusi beharko dugu haiei nola aurre egin eta gu nola babestu, eta ohartuko gara ondoko ideia hau mito faltsua dela: arma bat edukitzea gure buruaren babesa bermatzeko modu ona da. Ez baita horrela. EEBBetan

eginiko azterlanek diote familiako pertsona batek 22 aldiz aukera gehiago dituela balaz hiltzeko etxean su-arma edukita (halaxe dakar Michael Moorek bere liburuan: Gizon zuri kaikuak). Hori jakinik, saiatu beharko genuke aztertzen defentsarako dauden bide eta ildo guztiak, armen neurritz kanpoko negozioa alde batera utzita. Esaterako, defentsa ez erasokorra, gatazka armatuak prebenitzea, defentsa zibila, konfiantza eta lankidetzarako bideak eraikitzea eta abar.

Hauxe esan izan da... Hauxe esan izan da...

“Tokiko, erregioko eta munduko agintariek hauxe onartu behar dute: ezin dugu armen nazioarteko merkataritza utzi merkatu librearen esku . Ez dugu aberastu behar heriotzarekin negozioa eginez. Ulertu beharko genuke armen merkataritza ia beti dela diktadoreen lagun eta herriaren etsai. Iritsi da gizakien bizia armen gaineratik jartzeko unea”

ÓSCAR ARIAS, BAKEAREN NOBEL SARIA.

“Bake-kulturaren eraikuntzan lan egitea: Bake-kulturak baketzea sustatzen du. Kultura honek aintzat hartu behar ditu bakea eraikitzea sustatzen duten bizimoduak, sinesmenak, balore eta jokabideak. Halaber, kultura horrek lagungarri izan behar du erakundeetan aldaketak eragin eta gobernuek hau guztia susta dezaten: ongizatea, berdintasuna, baliabideak zuzentasunez banatzea, gizabanakoentzako segurtasuna, familiak, talde edota nazioen identitatea, eta indarkeria erabili behar izan gabe”.

VICENÇ FISAS. BARTZELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOKO (UAB) BAKE KULTURA ESKOLAKO ZUZENDARIA

“EEBBek nahi eta espero dute mundu osoko gobernuek terrorista zikinak hiltzen laguntzea, mehatxu baitira gobernu horien herrialdeentzat eta munduko bakearentzat. Gobernuek, konpromiso hori betetzeko, laguntza edota baliabideak behar badituzte, EEBBek laguntza emanen diete”.

GEORGE BUSH, EEBBetako PRESIDENTEA (2002)

“Nahiago izanen nuen jendeak erabiltzeko moduko makina asmatu izana, nekazariei lanean laguntzeko modukoa, esaterako segamakina bat”.

MIIJAÍL KALÁSHNIKOV, AK-47 FUSIL AUTOMATIKOAREN ASMATZAILEA. FUSIL HORRI ERE KALASHNIKOV ESATEN ZAIO.

“Bizitza erabat aldatu da, gerrak eraginik. Orain, ez dugu uzta biltzen eta ez dugu soroetan beste inolako lanik egiten aurretik poliziarri jakinarazi gabe. Lehenago, nekazariok elkartu egiten ginen gure kontuez erabakitzeke. Orain, poliziarekin biltzen gara!”.

SRI LANKAKO NEKAZARIA (1998)

“Ez dugu desarmean sinesten idealismoak edota lañotasunak eraginik. Gatazka armatuei aurrea hartzeko modurik onena hauxe da: indarkeria egiteko erabiltzen diren bitartekoak ezabatzea”

ALPHA KONARÉ, MALIKO PRESIDENTE OHIA.

"Arma arinek askoz ere jende gehiago hil dute beste armek baino, baita Hiroshima eta Nagasaki hondatu eta erraustu zituzten bonba atomikoak kontuan hartuta ere. Arma arinek heriotza kopuru handia eragiten dute. Horregatik, esan daiteke suntsipen handiko armak direla".

KOFI ANNAN, NAZIO BATUEN IDAZKARI OROKORRA (2000)

"Etsaiak, behintzat, entzun nahi izanen balu, gauza miragarria litzateke. Tiroak bukatu eta batzuk eta bestek elkarriz entzun ahal izanen genion, hitz egiten genuke eta saiatu armarik ez erabiltzen. Gustatuko litzaidake indarkeria honi guztioni azkena eman ahal izatea eta nire herrialdea garatzen laguntzea."

FILIPINETAKO NESKATO SOLDADUA (2001)

"Begi bistakoa izan beharko luke bai injustiziarik laguntza ukatzeak bai justiziarik laguntzeak"

MARTIN LUTHER KING

"Beldurra dut. Baina kontua da beste bandako kideak niri beldur handiagoa izatea. Armatua baldin banoa, baldintza berdinetan nago."

KALIFORNIAKO BANDA BATEKO KIDEA, EE.BB (2003)

"Emazioz dena lagun bati, salbu eta zure autoa, zure emaztea eta zure pistola ."

KAZETARIEK IRAKEN JASOTAKO ESAERA ZAHARRA (2003)

"Nire herrian gizon bakoitzak bere pistola du, bestela ez zara inor. Zure emaztea bortxatu dezakete, lapurtu edota edozein gauza egin."

PAPUA GINEA BERRIKO GIZONA (2000)

"Gerra frentetik datozen gizon askok emakumeak eta seme-alabak jotzen dituzte, lo egiten dute arma burukoaren azpian dutela, emazteak bortxatzen dituzte, altzariak hautsi, oihu egin, biraoak bota eta akusazioak egiten dituzte."

BEOGRADOKO EMAKUMEA, SERBIA (1992)

"Aro ilunean bizi gara, munduko orden berriak harrapatu. Egoera honetan, oinazea partekatzea funtsezko baldintza da, duintasuna eta itxaropena berriz ere aurkitzeko.

//Oinazearen parte handi bat ez daiteke partekatu, baina partekatu daiteke huraxe partekatzeko desioa.

Eta ezinbestean desegokia den ekintza horretatik erresistentzia bat sortzen da."

JOHN BERGER

Gida didaktikoa

Gida didaktikoa

Segidan dagoen proposamen didaktikoa bigarren hezkuntzako ikasleentzako da. Jarduerak erabilgarriak izan daitezke gizarte, etika, tutoretza eta beste alor batzuetarako hala nola gai interesatua dagoen edozein irakaslerentzat. Hona hemen zeintzuk diren proposamen honen helburuak: armek Hegoko gizarteetan duten eragin larria ezagutu, indarkeriaren kultura kritikoki aztertu, eta aukerabideak proposatzea bake-kulturaren alde lan egiteko.

EGILEA: SIBILA VIGNA

1. Jarduera

Irudiak aztertzea

Helburua: Indarkeriari buruzko sarrera egitea hiru irudien bidez. Irudietan gai hauek ageri dira: gerra, neskato-mutiko soldaduak eta indarkeria futbol zelaietan. Indarkeria kontzeptualizatu behar da, argazkien azterketan eta ikasleek alde aurretik dituzten ideietan oinarriturik.

Orientabideak: Irudien azterketa, galdera hauen bitartez egin daiteke: Zer ikusten duzue irudiotan?, zer dute komunean irudietan ageri diren pertsonen?, zuen ustez, zein herrialde edota lurraldetan hartu dira irudi horiek?, zer sentitzen duzue irudiak ikustean? Ondoren, taldeka, 2. jardueran proposatutako ariketa egin beharko dute. Prestaturiko historien adoste lana egin eta gela-taldean azalduko dira. Gero, ideia zaparrada eginen da. Emaitzak arbelean idatziko dira, galdera hauetan oinarriturik: zer da indarkeria?, indarkeria soilik fisikoa izan daiteke?, zer beste indarkeria mota ezagutzen duzue?

2. Jarduera:

Indarkeriaren kultura

Helburua: Zuzeneko indarkeria, egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturalaren kontzeptuak ezagutu eta kontzeptu horiek analisisirako elementu gisa erabiltzea datozen jardueretan. "Indarkeriaren kultura" kontzeptualizatzea.

Orientabideak: Aurreko jardueran prestaturiko indarkeriaren kontzeptua berriz ere landu eta arbelean idatziko dira komikian ageri diren indarkeria egoera guztiak. Azaldu ea egoera horiek antzekotasunik duten ala ez benetako bizitzarekin. Galdetu marrazkilariak zabaldu nahi izan duen mezuari buruz. Ondoren, hiru indarkeria moten definizioa irakurri eta bakoitzari dagozkion adibideak bilatuko dira komikian. Badira zuzeneko indarkeriari dagozkion adibide ugari: pertsona bat jipoitzen ari den militarra, polizia eta manifestarien arteko enfrontamentua, hil duten pertsona egunkari paperaz estalia dago, militarrei harriekin aurre egiten ari zaien mutila; egiturazko indarkeriari dagozkion adibide asko ere ageri dira bidegabeko egoeren eskutik: batzuek ausarki jan eta edaten duten bitartean, beste batzuk zaborretan bila eta bila ari dira, ez dute deus jatekorik, eskean ari dira, eta abar; eta indarkeria kulturala ere komikian ageri da. Indarkeria, bidegabekeria eta pobrezia justifikatzeko balio duten ideia eta kontzeptuak dira. Zehazki, komikian ageri da "aberatsen" jokabidearen bidez, egoera latz hura normalizatzen josten baitute eta beren bizimodua egiten segitzen dute deus gertatuko ez balitz bezala. Ondoren, 6. jardueran esaldiaren azterketa erraztu daiteke, ikasleei hauxe galdetuta: Nola ulertuko

zenukete esaldi hau egoera hauetan? A) zure herrialdea gatazkan dago beste herrialde batekin, b) baduzu gatazka bat zure gelakide batekin. Aztertu behar da ea zeintzuk diren honela pentsatu/jokatzeak izan ditzakeen ondorioak eta galdetu ikasleei zer iritzi dioten galdera honi: pertsona eta gizarte garen aldetik, gatazka indarkeriaz ala bake bideak konpontzen ditugu? Zein da gure jarrera?

Indarkeriaren kultura kontzeptualizatzeko, hasiko gara definitzen zer ulertzen dugun kulturaz, eta, hortik aurrera, galdetuko dugu zeintzuk diren indarkeriaren kulturak dituen ezaugarriak. Jarduera honetarako, baliagarria izanen da komikian ikusitako adibideak gogoratzea, lehenbiziko jarduerako irudietan, eta azken egunetako albistegiak aipatzea. Behin definizio bat adosturik, gogoetan aurrerapauso bat eman eta hauxe galdetuko dugu: zein da zuek munduan aurreikusten duzuen egoera, indarkeriaren kultura gure gizarteetan zabalzen segitzen bada?

3. Jarduera:

Mundu birtualak

Helburua: Indarkeriaren kultura, entretenimendu bideen eta informazio bideen bitartez nola zabalzen den aztertzea.

Orientabideak: Banatu gelako ikasleak bost taldetan. Talde bakoitzak esparru hauetako bat aztertu beharko du: bideojokoak, bideo klipak, filmak, marrazki bizidunak eta TBko albistak. Guztien artean erabaki behar da aztertu beharreko material kopurua. Adibidez: 6 bideojoko, 6 bideo klip, marrazki bizidunetako 6 film eta hiru albistegitako lehen 5 albiste (hainbat telebistetakoak edota hainbat egunetakoak izan daitezke). Talde bakoitzak koadro bat beteko du azterturiko esparru bakoitzeko. Hori "3. jardueraren baliabideetan" aurkituko dute. Tarte hori bera ordenagailuan (Microsoft Excel) bete daiteke edota inprimatu eta eskuz bete daiteke. Oharrak eta iruzkinen zutabea erabil daiteke nabarmentzeko zer indarkeria mota erabiltzen den azterturiko esparruan (adibidez: Zuzeneko indarkeria: fisikoa edo psikologikoa, egiturazkoa, kulturala). Zehaztu behar da bakar bakarrik idatziko direla indarkeria nabarmena ageri duten produktuak (bideojokoak, bideo klipak, etab.). Behin datu guztiak eskuraturik, koadro laburpena bete (ikaslearen fitxan) eta emaitzak iruzkinduko dira.

8., 9. eta 10. galderen bidez, gogoeta egin nahi da indarkeriaren kulturaren transmisioaz: komunikabideek zabaldu dutako indarkeria kopurua oro har baldin bada gure eguneroko bizitzan nabari duguna baino askoz ere handiagoa, zer funtzio eta emaitza izan ditzake indarkeriaren kulturarekin bat datozen balore horiek zabalteak?, indarkeriak "saltzen al du"?, balore horiek zabalteak indarkeria "normalizatzen" al du?

Kontua ez da bideojokoak, bideo klipak, filmak eta abar sutara botatzea, baizik eta lanabesak sartzea haiek kontsumitzeko. Bideojoko bat,

esate baterako, lagungarri gerta daiteke trebeziak garatzeko, entretenigarria da, sortzailea, baina ere berean indarkeriaren kultura sustatzen duten balore eta edukiak eman eta zabal ditzake, giza eskubideen eta pertsonen arteko elkartasunaren kontrako kultura, zehazki. Gai hauek zabaltzeko hauxe gomendatzen dugu:

4. Jarduera

Mundu erreala

Helburua: Mundu errealean gertatzen den indarkeriara eta indarkeriak biktimengan sortzen duen eragin larri horretara hurbiltzea, bi testigantza azterturik. Armeek zuzenean indarkeriaren larriagotzean duten eragina lantzen hastea.

Orientabideak: Lehen testigantza irakurri eta, labor, Kolonbiako egoera iruzkinduko da. Kolonbian gatazka armatua dago aspaldian, duela hogeita hamar urte baino gehiago hasitakoa. Talde asko dago nahasita: paramilitarrak (zibil armatuak), armada, gerrila, gobernuak, drogari loturiko sektoreak, Estatu Batuak eta abar. Giro horretan, herritar zibilak dira gatazkaren ondorioak gehien jasaten dituztenak eta talde armatuak haiengan ere egiten dute presiorik handiena. Ikasleei galdetuko diegu ea gaur egungo beste gatazka armaturik ezagutzen duten eta zeintzuk diren. Jarraian, gaur egungo munduan dauden gatazka armatuak laborri aztertuko ditugu. Horretarako, behera kargatuko ditugu 4.1 jardueraren baliabideak: Gatazka armatuen mapa. Mapa ikusi, behatu, eta kokatu beharko dugu zein herrialde eta lurraldetan gertatzen diren gatazka gehienak. Gogoeta egiten has gaitezke: gatazka horiek zergatik pilatzen dira leku jakin batzuetan? Zeintzuk dira ondorioak?... Aztertu behar da ea gatazka horiek eragotzi edo saihestu daitezkeen, nola konpondu litezkeen beste modu batez (bake negoziatioak), gatazka osteko errehabilitazioa eta abar.

Ondoren, bigarren testigantza irakurri eta iruzkinduko dugu. Ikasleei galdetuko diegu ea uste duten inolako indarkeria motarik dagoela gure institutuetan. Gero, azalduko da hiri-indarkeriaren arazoa gure herrialdean. Ikasleei eskatuko diegu adibide zehatza eman eta arazoaren garrantziak iritzia emateko. Atal hau osatzeko, behera kargatu 4. 2 jardueraren Baliabideak: testuingurutze datuak, eta azkenik 11., 12. eta 13. galderak erantzunen dituzte.

5. Jarduera

Nor ateratzen da irabazle indarkeria armatuarekin?

Helburua: Indarkeria armatuak zuzenean mesede hartzen dutenak nortzuk diren aurkitzea.

Orientabideak: Ikasleek koadroan eta grafikoan ageri den informazioa irakurri eta azalduko dute zergatik beraien ustez ez den gardena armen merkataritza buruzko informazioa. Behera kargatuko da 5. jardueraren baliabide hau: erosleen eta saltzaileen mapa. Orduan, mapa hori ikusi eta nabarmenduko da interes estrategikoen gain (herrialdeen artean, inork ere ez die "etsai izan daitezkeenei" eman nahi dauzkan armei buruzko informaziorik), beste arrazoi batzuk ere badaudela. Arrazoi horiek aurkituko dituzte testuak irakurrita eta behera kargatutako mapen arteko alderaketaren bidez. Herrialde aberats askok eta askok,

tartean NBEko Segurtasun Kontseiluko kideek, diru etekin handiak eskuratzen dituzte armak saltzeagatik, eta, arma horiek, jakina, gatazka armatuei hats eman eta haietan milioika gizon-emakume hiltzen dira. Galdetu ikasleei: zuen ustez, zergatik litzateke garrantzitsua armen merkataritza gardenagoa izatea?

6. Jarduera

Armarik etxean?

Helburua: Paradigma faltsuaz gogoeta egitea: segurtasuna = armak

Orientabideak: Behin "Armarik etxean?" testua irakurrita eta hari buruzko zalantzak argituta, ikasleak bi taldetan banatuko ditugu. Talde bat armak erostearen alde egonen da eta bestea, aldiz, kontra. Eztabaida errazteko, talde bakoitzari bere argudioak emanen zaizkio (baliabideak: 6. jarduera). Halaber, taldeei eskatuko diegu bakoitzak bere argudioak lantzeko. Behin eztabaida hasita, bi taldeak txandaka mintzatuko dira, beste taldea konbentzitzen saiatzeko. Eztabaidan emandako argudioak arbelean idatziko dira. Irakasleak gaia agortua dagoela ikusten duenean, jokia bukatutzat eman eta ikasle bakoitzari eskatuko dio iritzia emateko (alde batera utzita bakoitzak eztabaidan izan duen papera).

7. Jarduera

Indarkeriaren kultura / bake-kultura

Helburua: Indarkeriaren eta bakearen ikaskuntzaz gogoeta egitea. Bake-kultura kontzeptualizatzea.

Orientabideak: 20. galderak indarkeriaren jatorriaz egin nahi du gogoeta. Armarik gabeko munduan, ziur aski pertsonen indarkeriaz jokatzeko beste modu batzuk aurkituko litzukete. Indarkeria errotik erazteko, "zerbait gehiago" behar da. Horrela, 21. galderari buruz proposatutako esaldiak islatzen du bake bidean ikasi eta hezteko beharra. Jende askok besterik esan arren, indarkeria ez da gizakiak berez duen gauza bat. Animalia espezieen artean, beste inork ez du gerra egiten, ez hiltzen ere, ez bada oinarritzko beharrak asetzeko. Beraz, 20. eta 21. galderak erantzun ondoren, ikasle guztien artean definizio bat landuko dute bake-kulturaz.

8. Jarduera

Bake bidean aurrera

Helburua: Landutako gaietara loturik dauden ekintza proposamen batzuk ezagutu eta prestatzea.

Orientabideak: Ikasleei proposatzen zaie informazio koadroak irakurri eta iruzkintzea, eta, haietan oinarriturik, ideia zaparrada egitea egin litezkeen ekintzei buruz. Azkenik, aurkeztutako ekimen batzuk martxan jartzea adostu daitezke.

Gehiago jakiteko

Gehiago jakiteko

Bibliografia

Vidas Destrozadas La necesidad de un control estricto en el comercio internacional de armas. Armak kontrolpean

Kanpainaren Txostena (Eskura dago web orrian eta bi GKEen egoitzetan). Amnistía Internacional eta Intermón Oxfam

Gatazka, giza eskubideak eta bake eraikuntzari buruzko Txostena.

Escuela de Cultura de Pau de la UAB Alerta 2003!
Bartzelona: Icària Argitaletxea

Guerras del siglo XXI.

IGNACIO RAMONET (2002)
Bartzelona: Mondadori

El abecé de la paz y los conflictos.

Lederach, J. P.: Los libros de la Catarata.
Madrid, 2000.

Bakerako hezi. Proposamen posible bat.

Giza Eskubideen aldeko Bakerako Hezkuntza Mintegia:
Los Libros de la Catarata (Edupaz bilduma), Madrid, 2000.

Web interesgarriak:

Web interesgarriak:

Armak kontrolpean kanpaina, armek gizakien artean eragiten duten kostea murrizteko:

www.armasbajocontrol.org

Bakerako Kanpaina: ikerketa militarari ez!:

www.noalainvestigacionmilitar.org

Escuela de Cultura de Pau de la UAB Alerta 2003!:

www.pangea.org/unescopau

Gernika gogoratuz – Bakerako Ikerketa Zentroa:

www.gernikagogoratuz.org

Seminario Galego de Educación para a Paz:

www.gernikagogoratuz.org

Bakerako Ikerketa Zentroa: www.fuhem.es/cip/

Hezkuntza baliabideak: bakea, garapena eta

kulturartekotasuna: www.pangea.org/edualter

Fundación por la paz: www.fundacioperlapau.org

www.iansa.org (ingelesez)

Bowling for Columbine de Michael Moore, eta interneten lantzeko proposamen didaktikoa:

www.bowlingforcolumbine.com

Baliabide didaktikoak

Baliabide didaktikoak

Intermón Oxfamen zorro pedagogikoa *Bizimodu duinaren alde, armarik ez.* (lehen eta bigarren hezkuntzarako proposamena): www.intermonoxfam.org

Bideojokoak hezkuntzaren bidez lantzeko ikasmateriala.

Amnistía internacional, Espainiako atala www.a-i.es/temas/educa

Gure web-ari bisita egin
eta global express-a
deskarga ezazu!!

www.IntermonOxfam.org/educar/global

Global Express ikasleek euren buruari hedabideek diotenari buruz galdetzeko da. Errealitatea aztertzeko ikuspegi kritikoa bultzatu nahi du, munduaren egoera eta, batez ere, garapen bideko munduaren egoera ulertzeko gauza izan daitezen.

Global Express honako hauen ekimena da: Curriculum Development Unit (Eire), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia). Global Express está financiado pola AECl.



Gida didaktikoa

Gida didaktikoa

Segidan dagoen proposamen didaktikoa bigarren hezkuntzako ikasleentzako da. Jarduerak erabilgarriak izan daitezke gizarte, etika, tutoretza eta beste alor batzuetarako hala nola gai interesatua dagoen edozein irakaslerentzat. Hona hemen zeintzuk diren proposamen honen helburuak: armek Hegoko gizarteetan duten eragin larria ezagutu, indarkeriaren kultura kritikoki aztertu, eta aukerabideak proposatzea bake-kulturaren alde lan egiteko.

EGILEA: SIBILA VIGNA

1. Jarduera

Irudiak aztertzea

Helburua: Indarkeriari buruzko sarrera egitea hiru irudien bidez. Irudietan gai hauek ageri dira: gerra, neskato-mutiko soldaduak eta indarkeria futbol zelaietan. Indarkeria kontzeptualizatu behar da, argazkien azterketan eta ikasleek alde aurretik dituzten ideietan oinarriturik.

Orientabideak: Irudien azterketa, galdera hauen bitartez egin daiteke: Zer ikusten duzue irudiotan?, zer dute komunean irudietan ageri diren pertsonen?, zuen ustez, zein herrialde edota lurraldetan hartu dira irudi horiek?, zer sentitzen duzue irudiak ikustean? Ondoren, taldeka, 2. jardueran proposatutako ariketa egin beharko dute. Prestaturiko historien adoste lana egin eta gela-taldean azalduko dira. Gero, ideia zaparrada eginen da. Emaitzak arbelean idatziko dira, galdera hauetan oinarriturik: zer da indarkeria?, indarkeria soilik fisikoa izan daiteke?, zer beste indarkeria mota ezagutzen duzue?

2. Jarduera:

Indarkeriaren kultura

Helburua: Zuzeneko indarkeria, egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturalaren kontzeptuak ezagutu eta kontzeptu horiek analisisirako elementu gisa erabiltzea datozen jardueretan. "Indarkeriaren kultura" kontzeptualizatzea.

Orientabideak: Aurreko jardueran prestaturiko indarkeriaren kontzeptua berriz ere landu eta arbelean idatziko dira komikian ageri diren indarkeria egoera guztiak. Azaldu ea egoera horiek antzekotasunik duten ala ez benetako bizitzarekin. Galdetu marrazkilariak zabaldu nahi izan duen mezuari buruz. Ondoren, hiru indarkeria moten definizioa irakurri eta bakoitzari dagozkion adibideak bilatuko dira komikian. Badira zuzeneko indarkeriari dagozkion adibide ugari: pertsona bat jipoitzen ari den militarra, polizia eta manifestarien arteko enfrontamentua, hil duten pertsona egunkari paperaz estalia dago, militarrei harriekin aurre egiten ari zaien mutila; egiturazko indarkeriari dagozkion adibide asko ere ageri dira bidegabeko egoeren eskutik: batzuek ausarki jan eta edaten duten bitartean, beste batzuk zaborretan bila eta bila ari dira, ez dute deus jatekorik, eskean ari dira, eta abar; eta indarkeria kulturala ere komikian ageri da. Indarkeria, bidegabekeria eta pobrezia justifikatzeko balio duten ideia eta kontzeptuak dira. Zehazki, komikian ageri da "aberatsen" jokabidearen bidez, egoera latz hura normalizatzen jotzen baitute eta beren bizimodua egiten segitzen dute deus gertatuko ez balitz bezala. Ondoren, 6. jardueran esaldiaren azterketa erraztu daiteke, ikasleei hauxe galdetuta: Nola ulertuko

zenukete esaldi hau egoera hauetan? A) zure herrialdea gatazkan dago beste herrialde batekin, b) baduzu gatazka bat zure gelakide batekin. Aztertu behar da ea zeintzuk diren honela pentsatu/jokatzeak izan ditzakeen ondorioak eta galdetu ikasleei zer iritzi dioten galdera honi: pertsona eta gizarte garen aldetik, gatazka indarkeriaz ala bake bideak konpontzen ditugu? Zein da gure jarrera?

Indarkeriaren kultura kontzeptualizatzeko, hasiko gara definitzen zer ulertzen dugun kulturaz, eta, hortik aurrera, galdetuko dugu zeintzuk diren indarkeriaren kulturak dituen ezaugarriak. Jarduera honetarako, baliagarria izanen da komikian ikusitako adibideak gogoratzea, lehenbiziko jarduerako irudietan, eta azken egunetako albistegiak aipatzea. Behin definizio bat adosturik, gogoetan aurrerapauso bat eman eta hauxe galdetuko dugu: zein da zuek munduan aurreikusten duzuen egoera, indarkeriaren kultura gure gizarteetan zabalzen segitzen bada?

3. Jarduera:

Mundu birtualak

Helburua: Indarkeriaren kultura, entretenimendu bideen eta informazio bideen bitartez nola zabalzen den aztertzea.

Orientabideak: Banatu gelako ikasleak bost taldetan. Talde bakoitzak esparru hauetako bat aztertu beharko du: bideojokoak, bideo klipak, filmak, marrazki bizidunak eta TBko albisteak. Guztien artean erabaki behar da aztertu beharreko material kopurua. Adibidez: 6 bideojoko, 6 bideo klip, marrazki bizidunetako 6 film eta hiru albistegitako lehen 5 albiste (hainbat telebistetakoak edota hainbat egunetakoak izan daitezke). Talde bakoitzak koadro bat beteko du azterturiko esparru bakoitzeko. Hori "3. jardueraren baliabideetan" aurkituko dute. Tarte hori bera ordenagailuan (Microsoft Excel) bete daiteke edota inprimatu eta eskuz bete daiteke. Oharrak eta iruzkinen zutabea erabil daiteke nabarmentzeko zer indarkeria mota erabiltzen den azterturiko esparruan (adibidez: Zuzeneko indarkeria: fisikoa edo psikologikoa, egiturazkoa, kulturala). Zehaztu behar da bakar bakarrik idatziko direla indarkeria nabarmena ageri duten produktuak (bideojokoak, bideo klipak, etab.). Behin datu guztiak eskuraturik, koadro laburpena bete (ikaslearen fitxan) eta emaitzak iruzkinduko dira.

8., 9. eta 10. galderen bidez, gogoeta egin nahi da indarkeriaren kulturaren transmisioaz: komunikabideek zabaldu dutako indarkeria kopurua oro har baldin bada gure eguneroko bizitzan nabari duguna baino askoz ere handiagoa, zer funtzio eta emaitza izan ditzake indarkeriaren kulturarekin bat datozen balore horiek zabalteak?, indarkeriak "saltzen al du"?, balore horiek zabalteak indarkeria "normalizatzen" al du?

Kontua ez da bideojokoak, bideo klipak, filmak eta abar sutara botatzea, baizik eta lanabesak sartzea haiek kontsumitzeko. Bideojoko bat,

esate baterako, lagungarri gerta daiteke trebeziak garatzeko, entrenigarria da, sortzailea, baina ere berean indarkeriaren kultura sustatzen duten balore eta edukiak eman eta zabal ditzake, giza eskubideen eta pertsonen arteko elkartasunaren kontrako kultura, zehazki. Gai hauek zabaltzeko hauxe gomendatzen dugu:

4. Jarduera

Mundu erreala

Helburua: Mundu errealean gertatzen den indarkeriara eta indarkeriak biktimengan sortzen duen eragin larri horretara hurbiltzea, bi testigantza azterturi. Armeek zuzenean indarkeriaren larriagotzean duten eragina lantzen hastea.

Orientabideak: Lehen testigantza irakurri eta, labor, Kolonbiako egoera iruzkinduko da. Kolonbian gatazka armatua dago aspaldian, duela hogeita hamar urte baino gehiago hasitakoa. Talde asko dago nahasita: paramilitarrak (zibil armatuak), armada, gerrila, gobernuak, drogari loturiko sektoreak, Estatu Batuak eta abar. Giro horretan, herritar zibilak dira gatazkaren ondorioak gehien jasaten dituztenak eta talde armatuak haiengan ere egiten dute presiorik handiena. Ikasleei galdetuko diegu ea gaur egungo beste gatazka armaturik ezagutzen duten eta zeintzuk diren. Jarraian, gaur egungo munduan dauden gatazka armatuak laborri aztertuko ditugu. Horretarako, behera kargatuko ditugu 4.1 jardueraren baliabideak: Gatazka armatuen mapa. Mapa ikusi, behatu, eta kokatu beharko dugu zein herrialde eta lurraldetan gertatzen diren gatazka gehienak. Gogoeta egiten has gaitzke: gatazka horiek zergatik pilatzen dira leku jakin batzuetan? Zeintzuk dira ondorioak?... Aztertu behar da ea gatazka horiek eragotzi edo saihestu daitezkeen, nola konpondu litezkeen beste modu batez (bake negoziatioak), gatazka osteko errehabilitazioa eta abar.

Ondoren, bigarren testigantza irakurri eta iruzkinduko dugu. Ikasleei galdetuko diegu ea uste duten inolako indarkeria motarik dagoela gure institutuetan. Gero, azalduko da hiri-indarkeriaren arazoa gure herrialdean. Ikasleei eskatuko diegu adibide zehatza eman eta arazoaren garrantziak iritzia emateko. Atal hau osatzeko, behera kargatu 4. 2 jardueraren Baliabideak: testuingurutze datuak, eta azkenik 11., 12. eta 13. galderak erantzunen dituzte.

5. Jarduera

Nor ateratzen da irabazle indarkeria armatuarekin?

Helburua: Indarkeria armatuak zuzenean mesede hartzen dutenak nortzuk diren aurkitzea.

Orientabideak: Ikasleek koadroan eta grafikoan ageri den informazioa irakurri eta azalduko dute zergatik beraien ustez ez den gardena armen merkataritza buruzko informazioa. Behera kargatuko da 5. jardueraren baliabide hau: erosleen eta saltzaileen mapa. Orduan, mapa hori ikusi eta nabarmenduko da interes estrategikoen gain (herrialdeen artean, inork ere ez die "etsai izan daitezkeenei" eman nahi dauzkan armei buruzko informaziorik), beste arrazoi batzuk ere badaudela. Arrazoi horiek aurkituko dituzte testuak irakurrita eta behera kargatutako mapen arteko alderaketaren bidez. Herrialde aberats askok eta askok,

tartean NBEko Segurtasun Kontseiluko kideek, diru etekin handiak eskuratzen dituzte armak saltzeagatik, eta, arma horiek, jakina, gatazka armatuei hats eman eta haietan milioika gizon-emakume hiltzen dira. Galdetu ikasleei: zuen ustez, zergatik litzateke garrantzitsua armen merkataritza gardenagoa izatea?

6. Jarduera

Armarik etxean?

Helburua: Paradigma faltsuaz gogoeta egitea: segurtasuna = armak

Orientabideak: Behin "Armarik etxean?" testua irakurrita eta hari buruzko zalantzak argituta, ikasleak bi taldetan banatuko ditugu. Talde bat armak erostearen alde egonen da eta bestea, aldiz, kontra. Eztabaida errazteko, talde bakoitzari bere argudioak emanen zaizkio (baliabideak: 6. jarduera). Halaber, taldeei eskatuko diegu bakoitzak bere argudioak lantzeko. Behin eztabaida hasita, bi taldeak txandaka mintzatuko dira, beste taldea konbentzitzen saiatzeko. Eztabaidan emandako argudioak arbelean idatziko dira. Irakasleak gaia agortua dagoela ikusten duenean, jokia bukatutzat eman eta ikasle bakoitzari eskatuko dio iritzia emateko (alde batera utzita bakoitzak eztabaidan izan duen papera).

7. Jarduera

Indarkeriaren kultura / bake-kultura

Helburua: Indarkeriaren eta bakearen ikaskuntzaz gogoeta egitea. Bake-kultura kontzeptualizatzea.

Orientabideak: 20. galderak indarkeriaren jatorriaz egin nahi du gogoeta. Armarik gabeko munduan, ziur aski pertsonen indarkeriaz jokatzeko beste modu batzuk aurkituko litzukete. Indarkeria errotik erazteko, "zerbait gehiago" behar da. Horrela, 21. galderari buruz proposatutako esaldiak islatzen du bake bidean ikasi eta hezteko beharra. Jende askok besterik esan arren, indarkeria ez da gizakiak berez duen gauza bat. Animalia espezieen artean, beste inork ez du gerra egiten, ez hiltzen ere, ez bada oinarrituko beharrak asetzeko. Beraz, 20. eta 21. galderak erantzun ondoren, ikasle guztien artean definizio bat landuko dute bake-kulturaz.

8. Jarduera

Bake bidean aurrera

Helburua: Landutako gaien loturik dauden ekintza proposamen batzuk ezagutu eta prestatzea.

Orientabideak: Ikasleei proposatzen zaie informazio koadroak irakurri eta iruzkintzea, eta, haietan oinarriturik, ideia zaparrada egitea egin litezkeen ekintzei buruz. Azkenik, aurkeztutako ekimen batzuk martxan jartzea adostu daitezke.

Gehiago jakiteko

Gehiago jakiteko

Bibliografia

Vidas Destrozadas La necesidad de un control estricto en el comercio internacional de armas. Armak kontrolpean

Kanpainaren Txostena (Eskura dago web orrian eta bi GKEen egoitzetan). Amnistía Internacional eta Intermón Oxfam

Gatazka, giza eskubideak eta bake eraikuntzari buruzko Txostena.

Escuela de Cultura de Pau de la UAB Alerta 2003!
Bartzelona: Icària Argitaletxea

Guerras del siglo XXI.

IGNACIO RAMONET (2002)
Bartzelona: Mondadori

El abecé de la paz y los conflictos.

Lederach, J. P.: Los libros de la Catarata.
Madrid, 2000.

Bakerako hezi. Proposamen posible bat.

Giza Eskubideen aldeko Bakerako Hezkuntza Mintegia:
Los Libros de la Catarata (Edupaz bilduma), Madrid, 2000.

Web interesgarriak:

Web interesgarriak:

Armak kontrolpean kanpaina, armek gizakien artean eragiten duten kostea murrizteko:

www.armasbajocontrol.org

Bakerako Kanpaina: ikerketa militarari ez!:

www.noalainvestigacionmilitar.org

Escuela de Cultura de Pau de la UAB Alerta 2003!:

www.pangea.org/unescopau

Gernika gogoratuz – Bakerako Ikerketa Zentroa:

www.gernikagogoratuz.org

Seminario Galego de Educación para a Paz:

www.gernikagogoratuz.org

Bakerako Ikerketa Zentroa: www.fuhem.es/cip/

Hezkuntza baliabideak: bakea, garapena eta

kulturartekotasuna: www.pangea.org/edualter

Fundación por la paz: www.fundacioperlapau.org

www.iansa.org (ingelesez)

Bowling for Columbine de Michael Moore, eta interneten lantzeko proposamen didaktikoa:

www.bowlingforcolumbine.com

Baliabide didaktikoak

Baliabide didaktikoak

Intermón Oxfamen zorro pedagogikoa *Bizimodu duinaren alde, armarik ez.* (lehen eta bigarren hezkuntzarako proposamena): www.intermonoxfam.org

Bideojokoak hezkuntzaren bidez lantzeko ikasmateriala.

Amnistía internacional, Espainiako atala www.a-i.es/temas/educa

Gure web-ari bisita egin
eta global express-a
deskarga ezazu!!

www.IntermonOxfam.org/educar/global

Global Express ikasleek euren buruari hedabideek diotenari buruz galdetzeko da. Errealitatea aztertzeko ikuspegi kritikoa bultzatu nahi du, munduaren egoera eta, batez ere, garapen bideko munduaren egoera ulertzeko gauza izan daitezen.

Global Express honako hauen ekimena da: Curriculum Development Unit (Eire), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia). Global Express está financiado pola AECI.



3. Jardueraren baliabideak


Azterturiko esparrua:

	Joko, film, marrazki bizidun, bideokliparen izena edo albiste titularra	Ekoizpen etxea (bideojokoak edo Katea (gainerako esparruentzat))	Indarkeriazko edukiak (markatu BAI =1 edo EZ = 0)	Oharrak edo iruzkinak
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
	Indarkeriazko edukiak osotara:		0	ADOREA!
	Lagina osotara (sartu hemen kopurua) →			
	Indarkeriazko edukien batez bestekoa azterturiko produktuetan			

4,1. Jardueraren baliabideak

Gatazka armatuen mapa.

“GATAZKA ARMATUAK ETA BAKE ERAIKUNTZA MUNDUAN”



“ALERTA 2003. GATAZKA, GIZA ESKUBIDE ETA BAKE ERAIKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA”. ESCOLA DE CULTURA DE PAU, 2003, EDITORIAL ICARIA.

- | | |
|--|--|
| Gatazka armatua duten herrialdeak | Arrisku handiko disputak dituzten herrialdeak |
| Konpondu gabeko gatazka dituzten herrialdeak | Bake prozesu edo negoziazioak gauzatu dituzten herrialdeak |
| | Gatazka osteko berreraikuntzan ari diren herrialdeak |

Gatazka armatua: hainbat eratako taldeek eragindako enfrontamentu guztiak dira, armak edota bestelako suntsipen bideak erabilita, urteko 100 hildako baino gehiago eragiten dituztenak. Honatx taldeak: indar militar erregularrak edo irregularrak, gerrilak, oposizioko talde armatuak, talde paramilitarrak, edo erkidego etniko edo erlijiosoak.

Nortzuk hiltzen dira gatazka armatuetan?

Bazenekien gatazken biktima guztien % 90 ez direla soldadu baizik eta herritar zibilak? Arma txiki eta arin batekin jotako tiroak hiltzen ditu gehienak: pistolak, metrailadoreak, fusilak, eta abar.

4,2. Jardueraren baliabideak


Testuinguratze datuak: indarkeria hirietan

Baina biktima guztiak ez dira gatazka armatuetan hiltzen...

- Indarkeriaren kulturak eta arma edukitzeak eragin nabarmena dute hiri-inguruetan: gero eta hiltzaile gehiago dago, gero eta banda gehiago eta gero eta segurtasun indar armatu gehiago ere bai.
- Hilketa armatua ugaltzen ari da munduko herrialde askotan. Erresuma Batuan, suzko armen erabilera % 35 hazi zen 2002an.
- Estatu Batuetan, 1996an, 9.390 hildako gertatu ziren tiroek eraginik eta, 2003an, tiroek eragindako hildakoak, aldiz, 11.127 izan dira. Gaur egun, Estatu Batuetan 192 milioi legezko arma daude partikularren eskuetan eta beste 40 milioi poliziaren eta agintarien eskuetan.
- Gatazkarik ez dagoenean, emakumeak arrisku handiagoa du bikotekideak hil dezan, baldin eta etxean suzko armarik badago.
- 1993an, suzko armek adingabe asko hil zituzten Estatu Batuetan, 5.721 zehazki. 1993 eta 1999 artean, 221 hildako izan dira herrialde bereko ikastetxeetan tiroketen ondorioz. 1998an, 2.000 haur inguru beren eskoletatik kanporatu zituzten suzko armak eramateagatik.

5. Jardueraren baliabideak

Erosleen eta saltzaileen mapa



6. Jardueraren baliabideak

Simulaziorako argudioak

AUZOKIDEEN BATZARRA

ARMAK EROSTEAREN "ALDEKO" TALDEA:

- Jende guztiak daki indarkeria handitzen ari dela. Gero eta albiste gehiago dago horri buruz. Hiri hau dagoeneko ez da leku segurua bizitzeko eta herritarrok lasai eta beldurrik gabe bizitzeko eskubidea dugu.
- Normala da guk gure burua defendatu nahi izatea. Aita edo ama onaren lehen eginbeharra da familia babestea, zaintzea. Zuk ez baduzu zure familia defendatzen, nork egingen du zure ordezt?
- Polizia beti berandu iristen da, indarkeria gertatu ondoren eta deus egin ez daitekeenean. Gainera, polizia aski balitz herritarrak defendatzeko, ez litzateke horrenbeste albiste izanen lapurketa, hilketa eta erasoei buruz. Poliziak ez ditu pertsona susmagarriak atxilotzen eta, horregatik, delinkuente askok delitu egiten segitzen dute.
- Armek efektu "disuasorioa" dute. Delinkuenteek eta erasotzaileek baldin badakite auzokideok armaturik eta antolatuturik gaudela gure burua defendatzeko, ziurrenera ez dira eraso egitera ausartuko. Aldiz, uste badute erraz menderatuko gaituztela, aukera gehiago dugu eraso jasateko.



ARMAK EROSTEAREN "KONTRAKO" TALDEA:

- Lehenik eta behin, informazio egokia behar da eta egoera era objektiboan aztertu. Baliteke komunikabideek indarkeria kasuak neurritz kanpo zabaltzea eta gugan beldurra eragitea.
- Armek ez digute segurtasun handiagoa emanen. Estatistikek diote aukera gehiago dagoela familia kide bat tiroz hilik gertatzeko etxean armaren bat edukita. Familia kideen beraien artean ere ezbeharrak gerta daitezke, edota gure kontrako eraso izanez zero, delinkuenteek arma guri kendu eta gure kontra erabil dezakete.
- Delinkuenteei jazarri eta indarkeriazko kasuak ikertzeko ardura du poliziak. Horregatik, prestakuntza egokia izan behar du eta beti jokatu behar du giza eskubideak aintzat hartuta.
- Herritarren artean arma gehiago egoteak ez du lagunduko indarkeria murrizten, aitzitik baizik, indarra emanen dio. Gizarteak indarkeriaren arrazoi sakonak aztertu eta benetako konponbideak, konponbide alternatiboak, bilatu behar ditu.